



TAILERRAK: EMAITZEN AZTERKETA ELKARLANEAN

2019ko urriaren 9an Tolosako Topic zentroan egindako Euskal Soziolinguistika Jardunaldiko parte hartzaileek lau lantaldeetan jardun genuen bertan aurkeztu ziren ikerketen emaitzak oinarri hartuta. Dokumentu honetan lantalde horiek planteatu ziren galderari emandako erantzunak aktagileek jasotako moduan:



Zein ideia, ondorio... egin zaizu interesgarria? Zein ez zenuen espero eta positiboki harritu zaitu? Zein errepikatzeko modukoa edo erakargarria?

1 LANTALDEA:

- Eremu ez euskaldunean harrera ona izatea, eragitea
- Antolaketa garrantzia eman beharra. Gakoa izan da. (Jarraikotasuna nola eman,...)
- Nerabeen artean eragile izateko prest azaldu direnak (Lasarteko kasua)
- Hiriguneen eremu funtzionala
- Gaindegiak aipatutako irizpideak (klabeak) kontuan hartzekoak (lurralde ikuspegi berria izan dezagun, egoerak ulertzeko, frustrazioak ez sortzeko..)
- Aktibatze aukerak □ eremu soziolinguistiko erdaldunetan emandako aldaketa garrantzitsuak
- Erabilera eragiteko saiakera, ez erabilera aztertzea
- Gutasun sentimendua □ emozioen garrantzia
- Ikerketak zaintza azaldu du lortutakoa eta ez lortutakoa. Datuek baieztatzen dute hizkuntza praktika berriak egiteko balio duela.
- Errespetua lantzen dela Euskaraldian
- Hizkuntza simetria lortzen dela solaskideak gaitasun ona badu

2 LANTALDEA:

- Parte-hartzaileak kontura dira, ariketa ez dela hain erraza.
 - Jendea konturatu da, egunerokoa ez duela uste bezain beste euskara egiten. Kontzientzia hartu, ahaldundu.
- Gazte eta helduen ondorioak antzerakoak
 - Gazteengan izan behar eragina
- Adina. Gazteen artean hasieran emozio/emaitza handiena eta gero beherakada handiena.
- Gazteekin ere gauzak egin daitezkeela ikusaraztea.
- Gazteekin ere egin daitezkeela konfirmatzea. Kontuz ibili behar dugu ikastetxeko eremu formalean ez gelditzea.
- 12 urtetik aurrera eragin beharra, eta garrantzia.
- Belarripresten erabilera handitzea lortu da
- Belarripresten kategorian dagoela irabazirik handiena
- Gune erdaldunetan eragin handiagoa, sorpresa atsegina



TAILERRAK: EMAITZEN AZTERKETA ELKARLANEAN

- Gaindegiaren mapa
 - Potentzialitate handiko eremuak
 - Sektore feminizatuak
- Hautu kontzientea egitearen garrantzia
 - Ahobizi euskaldun hartzaile + belarriprest euskaldun osoengan eragina
- Konpromiso pertsonalak
- Talde izaera. Aniztasuna
- Gaindegiaren ikuspegia oso interesgarria
 - Herrietan azterketa maila horretan egitea zaila ez ote?
 - Horri lotuta, gure batzordeak anitzak dira?
 - Gaindegiaren proposamenean: interesgarria (mugikortasuna, eragin-eremuak)
- Zalantzakoa: ingurune euskaldunetan emaitza iraunkorragoa da? Ez dugu hain argi ikusi
- Diskurtso berri bateratua ekarri du
- Egokitzapenak
 - Lasarteko eredua (gazteak)
 - Malgutasuna: Bihotz goxo rola
 - Aldaerak beharrezkoak (egitasmoa desbirtuatu gabe)
- Emaitzak: txukunak. Onak / eraginkortasun maila, zalantzan

3 LANTALDEA

- Emaitza onak erabilera baxuko eremuetan (Araba eta Nafarroa)
- Gaindegiaren ikuspegia interesgarria
- Toki bakoitzean gazteak nola inplikatu. Lasarte interesgarri.
- Emakumeak aktibatzea
- Ekimen arrakastatsua
- Ideologikoki ez da kontrako diskurtsorik egon.
- Behar soziala (euskararena) landu izana.
- Lehen hitza mantendu izana.
- Talde motorrean perfil ezberdinak egotea garrantzitsua.
- Herrietako pertzepzioa jasotzea.
- Ikuspegi errealista eskaini duela ikerketak.
- Hausnarketa pertsonala bultzatu.
- Taldetasuna + kolektibotasuna + elkarlana = aktibazioa
- Txapak, jakiteko norik ulertzen duen.

4 LANTALDEA:

- Fokoa beti gazteetan ipintzen dugu baina asko mugitzen da. Aldiz orain, 40 urteko tarte horretan izan da emaitza onena eta iraunkorra.
- Ahobizi euskaldun hartzaileen kopurua.
- Euskaldun osoak Belarripresten %30 inguru izatea.
- Parte hartzaile gehien 2. Eta 3. Gune soziolinguistikoetan egotea.
- Baldintza sozioafektibo egokiak lortu izana. Gutasuna. Belarriprest figuraren emaitza.



TAILERRAK: EMAITZEN AZTERKETA ELKARLANEAN

- Nobedade moduan lurralde antolamenduaren eragina eta emaitzak aztertzea (Gaindegia)
- Generoaren arabeko parte hartze desberdintasuna. Ikerketan oro har emakumearen parte hartze handiagoa. Atzetik dauden arrazoiak aztertzea interesgarri.
- Herri handienetan parte hartze handiagoa.
- Lasarteko esperientzia interesgarria nerabeekin.
- Elkarlana. Norabide berean beste burrunba bat lortzen da.
- Emaitzetan aldaketa sumatu izana eta eragin eremu handia izan zitekeen horietan pauso handiak ematea.
- Interesgarri Gaindegiak egin duen irakurketa. Barne-faktoreez gain, kanpo faktoreak aztertzea eta horiek eragin zuzena dutela ondorioztatzea.



Zein ideia, ondorio... egin zaizu kezkarri? Zein ez zenuen espero eta negatiboki harritu zaitu? Zer ez litzateke errepikatu behar? Zer gelditu da argitu gabe edo zalantzan?

1 LANTALDEA:

- Solaskideak gaitasun zailtasunak dituenean gaitasun osoa duenak ez dio euskarari eusten, jokaera okerra da.
- Rolak aukeratzeko momentuan gaitasunaren arabera eginda.
- Ikerketarako galdetegiak arazon teknikoak eman zituen eta honek Eragin zuen bildutako kopuruan.
- Euskararen egoera larria erakusten du Euskaraldiaren ikerketak.
- Euskaraldia ezin da izan betetzen ez den Euskara-Legearen pomada. Gezurretan ari dira. Urteak eduki dituzte eta ez dute bete.
- Euskaraldiak hizkuntza-ohiturak aldatzeko Eragin txikia.
- Ikerketarako baliabideak sendotu behar dira.
- Rolen azalpena eta belarripresten prestigiotzea
- Sortu diren espektatibak irrealistak behar dute
- Erdaldunengana iritsi ez izana. Iritsi behar da? Elebidunak?
- Simetriak eta elebiko elkarrizketetan aldamenekoak gaitasun nahikoa ez duela pentsatzen dugunean, gaztelaniara pasatzea
- 16-25 urteko jendea
- Solidoen likidotzea (militantzia)
- Ohiturak errotzeko zailtasunak
- 22-35 urte bitarteko lagunen partehartzea (gehienek euskaraz badakite baina...)
- Belarriprestek zereginak betetzeko zailtasunak
- Parte hartzea eta emaitzen arteko desoreka (aurreikuspenak altuegiak akaso?)
- Administrazioaren parte hartzea, borondatezkoa?
- 16—22 urte bitartekoen parte hartzea handia, baina errotze maila txikia (zerbait egin behar)



TAILERRAK: EMAITZEN AZTERKETA ELKARLANEAN

2 LANTALDEA:

- Harreman informaletan gutxiago eragitea lortu da; errazagoa izan da eremu informaletara heltzea (ezagunekin).
- Rolen komunikazioa: ondo azaldu dugu?
 - Ahobizien 'pedagogia', belarriprestekin gaudenean
- Belarriprest:
 - Proporzioan gutxi
 - Balio sozial baxua
- Ikusgarritasuna: parte-hartzailea asko itzalean, ez izena eman, rolak ez ulertu...
- Adin jakin batzuk (18-25) parte-hartzea zailagoa, herrietan.
- Hutsunea: mundu digitala ez da aipatu
- Elkarrizketak euskaraz eusteko zailtasunak:
 - Elebitan denean, euskaraz jarraitzea zaila
 - Euskaraz jarduteko zailtasunak dituztenekin
- Elkarrizketa asimetrikoak. Denboran ez irautea.
 - 'Modan' dagoen gaia izanda, gehiago ez funtzionatzea kezagarria
 - 15 egun nahikoak izango dira? Luzatu egin beharko litzateke?
 - Hizkuntza ohiturak aldatzeko balio du, baina ez aldaketa finkatzeko
- Generoa. Emakumeek karga hartzea.
- Mezua bakarrik oso euskalgintzaren ingurua iritsia da argitasunez
- Euskal komunitatetik haratago ez ote garen iritsi nahikoa
- Likidotasuna antolakuntzan
- Lasarteko eskolan DBHn ikasleen erdia belarriprest izatearen datuak hezkuntzaren inguruko kezka zabala sortu
 - Hezkuntzaren egitekoa, hizkuntzarekiko? Lanketa zertan geratzen da? Ikasleek gaztelaniara jotzeko joera; irakasleek tresnarik ez, ikasleek gaitasunik ez...
- Ikerketaren lagina. Erantzun gutxi. Lehengotik hirugarrenera alde handia.
 - Askok ez dute e-mailik, guk sortu genuen orokor bat...
 - Batzuk paperean pasa zieten
 - Aplikazioak arazoak eman zituen
- Kezagarria: erdal guneetan izan dela mantentze tasa baxuena
- Euskaraldiak euskalgintza monopolizatzekeo arriskua
 - Batzuk aukera gisa ikusten dute Euskaraldia. Toki batzuetan ez dago euskalgintza antolaturik; aukera ematen du horretarako.

3 LANTALDEA:

- Ez euskaldunak, gazteak, lan-mundua, gizonezkoak
- Herri euskaldunetan/erdaldunetan zer du egiteko Euskaraldiak?
- Monopolizazio arriskua.
- Batzordeekiko exigentzi handia egin da.
- Ahobiziek ez diogu eusten solaskideak zailtasunak baditu.
- Ulertzen ez dutenen papera nola landu?
- Finkatzeko mekanismoak ez ditugu ezagutzen.



TAILERRAK: EMAITZEN AZTERKETA ELKARLANEAN

- Belarriprest aktibo/pasiboen azterketa. Kolektibo hau gehiago ezagutu behar dugu.
- Azterketa bat ikusteko betiko euskaldunek non ez duten parte hartu.
- Lagina ordezkarria da benetan? Edo sesgatua dago?
- Rolak gaitasunarekin lotu izana.
- Rankingetan (gehien parte hartu dutenak) hiriburuak ez dira agertzen eta hor dago pertsona gehien.

4 LANTALDEA:

- Elebiko elkarrizketak
- Euskaraldia bukatu eta %90ak euskaraz bukatu zuela. Baina ez ote zegoen pixkat puztuta Ahobizi rola ez zelako behar bezala egin?
- Ez da erronka bat. Belarriprest gutxietsia ez ote zegoen. Planteamendua bera ez dela erronka bat.
- Gaitasun gutxikoei euskaraz egitean, pazientzia. Erronka izatetik natural izatera. Girotzeko 11 egun nahikoa da? Baliabide gehiago behar dira.
- Kezkagarria parte hartze txikia gizonetan.
- Herri txiki eta euskaldunetan kosta egin da; ez da beharrik ikusi.
- Nerabe eta gazteen beherakada hirugarren galdetegian. Hurrengorako klabea.
- Euskaldunok dugun zailtasuna euskara gaitasun baxua duten horiekin elkarrizketak euskaraz mantentzeko.
- Jendeak rolen konpromisoa erabat ulertu ez izana.
- Euskaraldia-euskalgintza harremana nola aztertu? Ahalmen guztia euskaraldiari begira? Asko eskatu du baliabide aldetik.



Non jarri behar da arreta hurrengo edizioetan? Zeri erreparatu beharko genioke? Zein dira aztergai interesgarriak? Zein erronkak?

1 LANTALDEA

- Gazteak identifikatuta sentitu daitezela Euskaraldian.
- Gizonezkoen parte hartzea sustatzea
- 12-16 urtekoei erantzuna ematea
- Talde eragileen jarraikortasuna. Talde horiek balioan jarri
- Irudi publikoa dutenen jarrera. Komunikabideen ekarpena (ETB2, GARA...)
- Rolak kontua argitzea
- Erakundeengana iristeko modua
- Erakunde publikoen papera, erantzukizun handia dute.
- Baliatu/uztatu Euskararen Legea 2. edizioan



TAILERRAK: EMAITZEN AZTERKETA ELKARLANEAN

- Galdera egin herriari eta politikariei. Euskal Herriko hizkuntza-ohiturak aldatu nahi ditugu? Prest baldin bagaude eta hori baldin bada nahia, esku hartu.
- Belarriprest prestigiatzeko pertsonen errelatoak erabili herriak uler dezan
- Gizarte-hitzarmena zabaldu
- Hainbat babesgune jarraiak izan daitezen 11 egunetatik haratago.
- "Egunean behin" app-a oinarri hartuta, Euskaraldiak irauten duen epean, taldeen artean "lehiatzeko" app-a sortu.

2 LANTALDEA:

- Norengana ez gara iritsi? aztertu beharra...
 - Nor ez da bildu? Zer esaten digu feminizazioak?...Bide horiek landu
- Rolen lanketa.
 - Rolen definizioa, mezuak, mailak egokitu, neurtu...
 - Rolen lanketa handiagoaren beharra
- Belarriprest: Hizkuntza gaitasunarekin ez lotu, prestigio gehiago (pedagogia lana beharrezkoa)
- Erdal eremuko euskaldunak zaindu; arnaguneetakoak aktibatu.
- Erdalguneetako herritarrak gehiago erakartzen arreta jarri.
- Gazteengan fokua jarri (12-16/16-24): egokitzapen bideak aztertu (Lasarteko eredu)
- Arreta jartzekoak:
 - Gazteak (20-30 urte bitartekoetan zentratu)
 - Geoestatistikaren eremu morea
 - Mundu digitala
 - Prestakuntza/pedagogia: rolak ondo gizarteratzearen garrantzia
 - Belarriprest-en prestigioa
 - Antolaketa
 - Elebitasuna
 - Barne hausnarketa
- Hizkuntza ohitura aldaketak nola egonkortu?
- Euskaraldiaren olatuarekin nola jarraitu? Etenaldietan, zer?
- Jende ezagunari elkarrizketak egin, haien iritzia eman dezaten (5 minutu, astero)
- Hasiera zein amaiera emateko jaialdi handia
- Euskararen hilabetea
- Euskaraldiarekin bezala, beste arlo batzuk elkarrekin, batera, lantzeko bideak jarri beharko genituzke.
- Hurrengo edizioan helburu egingarriak jartzea: gertuko enpresak, Arigune posibleenak...
- Lan talde zabalak osatzen saiatu:
 - Lan puntualak egiteko taldeak (bisitak...)
 - Batzorde motorra
 - Teknikari-dinamizatzaile taldea indartsua
- Antolaketa: talde motorra+talde eragilea.
 - Funtzionaltasuna eman. Aktibatu.



TAILERRAK: EMAITZEN AZTERKETA ELKARLANEAN

- Gatazka naturalizatu: 'eraldaketak berak dakar gatazka'. Ez saihestu, tresnak jarri gatazka egoerak kudeatzeko.

3 LANTALDEA:

- Elebiko elkarrizketei nola eutsi
- Euskaldunen artean euskaraz aritzea
- Taldeka gaudenean nola egin aldaketa
- Gazteak erakarri taldeetara
- Kontzientzia lantzeko estrategiak landu behar dira (elikatzeko)
- Iritsi ez garen sektoreengana nola iritsi.
- Errutina ez bihurtzeko zerbait egin beharra.
- Helburua: rolak gizarteratzea
- Itzulketa egin: gizarteari itzultzeko zerbait asmatu (zoriontzeko zerbait)
- Luzatu: rolak egunero lantzeko dira
- Belarriprest prestigiatu.
- Eremu formaletan inplikazioa eskatu (lan-mundua...)
- Batzordeen iraunkortasuna (zaintza) + 2. Geruza

4 LANTALDEA:

- Parte hartu ez dutenen iritziak, ikuspegiak.... hurrengorako giltzarriak izateko. Zaila da. Sareetan zer esaten da Euskaraldiari buruz?
- Belarriprest jarrera aktibatzea, ate asko irekitzen dituelako.
- Konpromisoen girotze, komunikazioa...
- 16 urtez azpikoekin zer egin?
- Rolan azalpen garbia. Belarripresten garrantzia.
- Helburuak ez dute berberak izan behar eremuen arabera. Egokitu behar da.
- Norbanakoan jarri behar da arreta, baina baita goitik behera ere.
- Parte hartu ez dutenen motiboak aztertzea interesgarria.
- Udalerrri euskaldunetan herritik kanpo joka dezaketen paper garrantzitsuaz ohartaraztea.
- Girotzean arreta jarri behar da. Herri guztiek ez dituzte baliabide berak, eta txikietan zaila da dinamika aktibo eta iraunkorrak mantentzea.
- Dinamikaren hustutzea. Irauten duen bitartean oso aktiboa (eta iraupenak horrekin zerikusia du), baina gero erabateko hustutzea.
- Nola iritsi euskaratik urrun daudenetara?
- Erdarazko komunikabideetan errepresentazio gutxi sumatu zen. Zeharkakotasuna landu behar da.
- Euskara ulertu bai, baina hitz egiten ez dutenen parte hartzea kostatzen da.